



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

2024ko Memoria



2025



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

2024ko Memoria

➤ 1. Aurkezpena

➤ 2. Azterlan kuantitatiboak

- Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta (2024)
- Kultura eta Sormen sektoreetako finantzaketa eta gastu publikoari buruzko estatistikak (2022)
- Arteen eta kultura-industrien estatistika eta Sormen-industrien estatistika (2023)
- EAEko kultura-programazioaren eta -sorkuntzaren azterketa
- Orkestra-Lehiakortasunerako euskal institutuarekiko lankidetzak
- Ikusiker panelarekin lankidetzak
- Bestelako estatistikak

➤ 3. Azterlan kualitatiboak

- Politiken diseinuarekin eta ebaluazioarekin lotuak
- Publikoekin lotua
- Kultura-sektoreko erronkak
- Sektore-eskaerei irekitako txostena

➤ 4. Kulturklik

- Automatizazioa
- Hobekuntzak atarian
- Web-analitika

➤ 5. Komunikazioa

- Prentsa oharrak
- Web-orria
- Estilo-liburua

➤ 6. Bestelako jarduerak

- Txostenak egitea, aholkularitza ematea, kontsultak ebaztea

Laguntza teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Diseinua eta maketazioa:
DIAGONAL 360°

**KULTURAREN EUSKAL
BEHATOKIA**

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava
T. 945 016 947
kulturabehatokia@euskadi.eus

1. Aurkezpena

Kulturaren Euskal Behatokiak 2024ko Memoria aurkezten du.

Estatistikaren esparruan, nabarmentzekoak dira bi eragiketa nagusiren emaitzak: Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta eta Kulturako eta sormen sektoreetako finantzaketa eta gastu publikoaren estatistikak.

Aipagarria da, beste alde batetik, Behatokiak unibertsitatearekin duen lankidetzaren jarraipena, esparru horretan kokatzen baitira Orkestrarekin sinatutako hitzarmena eta NOR taldearekin elkarlana.

Azterketa kualitatiboei dagokienez, honako gai hauek aztertu dira, besteak beste: politika publikoen ebaluazioa, nazioartekotzea, kulturako ikusleen eta zaleen profilak, ondare immateriala eta

gobernantza, kultura gizarte bazterketaren aurrean, zahartze aktiboa edo alfabetizazio mediatikoa. Gogoratu behar da, halaber, Behatokiak sektore-eskaerei irekitako leihoa duela eta azken urteetan sendotzen ari den zerbitzua dela.

Kulturkliken inguruko lanak eta komunikazioaren bidez Behatokiaren lana ezagutarazteko ahaleginak osatzen dute 2024an egindako lanen programa.

2. Azterlan kuantitatiboak

2024an, estatistikaren arloko lanaren emaitzek txosten hauek eman dituzte:

Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta (2024)

Herritarren ohiturak, praktikak eta parte-hartze kulturala ezagutzeko iturri nagusia da. Eragiketak duen xehetasun- eta zehaztasun-mailari esker, funtsezko tresna da gure testuinguruan parte-hartze kulturalaren gakoak aztertze eta kultura-politikak diseinatzeko.

Inkestaren emaitzen txostena argitaratzeko lanetan dago.

Kultura eta Sormen sektoreetako finantzaketa eta gastu publikoari buruzko estatistikak (2022)

2008an hasita, Behatokiak kulturako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika gauzatzen du. Bi urtez behingo eragiketa horren ondorioz, euskal administrazio guztiek kulturaren egindako inbertsioaren bilakaera azter daiteke: 2022 urtean, 488 milioi euroko gastu kontsolidatua kulturaren, 2020an baino % 28 handiagoa.

2020an sormen-sektoreak sartu ziren azterlan honetan. Bi eragiketa horiek EAEko kulturako eta sormen-sektoreetako enplegu publikoari buruzko datuak ere ematen dituzte, genero-ikuspegia barne. Kulturaren, adibidez, 3.645 lanpostu daude guztira. Enplegu propioa 1.672 lanpostu (azpikontratatu gabe) emakumeek betetzen dituzte.

Arteen eta kultura-industrien estatistika eta Sormen-industrien estatistika (2023)

Bi urtez behingo eragiketa bikoitz horren landa-lana hasi da, eta 1.000 eragilek baino gehiagok hartzen dute parte. Azken edizioan (2021), 747 milioi euroko diru-sarrerak izan zituen, eta 7.600 enplegu baino gehiago sortu zituen.

EAEko kultura-programazioaren eta -sorkuntzaren azterketa

2024 urtean, 2023 urtean hasitako Kulturklikeko datuak iturri dituzten bi txosten-serieak finkatu ditu Kulturaren Euskal Behatokiak.

- Kultura-programazioaren azterketa: hiru hilean behin, eta urte osoa.

- Emakumeek eta gizonen kultura-programazioan eta kultura-sorkuntzan duten presentziaren eta parte hartzearen azterketa: 2024an antzerkia aztertu da.

Orkestra- Lehiakortasunerako euskal institutuarekiko lankidetzak

Erakunde horrekiko lankidetzak hitzarmenarekin jarraitu da, eta 2024. urtean, lehenetsitako KSlen azpisektoreen azterketa xehatua egin da. Horrela, liburu eta prentsaren, musikaren eta ikus-entzunezkoen eta multimediaren azpisektoreen dimentsio ekonomikoa aztertu da. Azterlan hau argitaratzeke dago.

Ikusiker panelarekin lankidetzak

IKUSIKER Euskal Herriko gazteek dauzkaten ikus-entzunezkoen kontsumoak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilerak aztertzen ditu IKUSIKER ikerketak (Applika+ izeneko proiektua: US22/23). Ikerketa burutzeko, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleek osatutako bi panel daude martxan eta aldiro-aldiro inkestak luzatzen zaizkie, 12-23 urte bitarteko gazte hauek dituzten portaerak ezagutzeko.

Bestelako estatistikak

Behatokiaren webgunean, halaber, EAEko argitalpenen errealitatea ezagutzeko egin diren azterlanak argitaratu dira, zeinak Euskadiko Editoreen Gremioarekin koordinatuta egin baitira.

- Liburuaren barne merkataritza EAEn 2023
- Euskarazko argitalpenak 2023

3. Azterlan kualitatiboak

Kultura-politiketarako garrantzitsuak diren gaietan sakontzeko egiten diren azterlanak dira. Gaien kataloga konfiguratzeko, planteamendu integral bat hartzen da, zeinak barne hartzen baititu bai alderdi sektoriala, bai bokazio publikorako politikak, behar kolektiboak eta interes orokorrari erantzuteko bideratzen direnak.

Politiken diseinuarekin eta ebaluazioarekin lotuak

Gai honen inguruan **bi azterlan** egin dira: kultura-politiken ebaluazioari buruzko gogoeta teorikoa eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren eta Etxepare Euskal Institutuaren nazioartekotze-programen zati bat ebaluatzeko adierazleen diseinua.

- Lehen azterketak **politika publikoen ebaluazioan** jartzen du arreta. Gai nagusia da, gaur egun NBE, ELGA eta EB erakundearen erregulazio-orientabideetan

zein esparru akademikoan. Txosten honek kontzeptuak argitzen lagundu nahi du, ebaluazio-prozesuari buruzko erreferentziak emanez, gidak eta orientabideak aztertuz, metodologiak eta tresnen adibideen bidez.

- Bigarrena, berriz, **azterlan aplikatua** da. Abian dauden nazioartekotze-programen barneko ebaluazio-tresna bat diseinatu da (adierazleak eta galdetegiak).

Publikoekin lotua

Parte-hartze kulturalari buruzko inkestak datozen datuak eskura daudela kontuan hartuta, emaitza orokorren txostenen analisi osagarria egin da. **Kulturaren publiko eta ez-publikoen ezaugarriak eta profilei buruzko begirada** sakona da (menuak, ezaugarriak, beste zaletasun batzuk, etab.). Praktikan jartzen da arreta, eta ez azalpen-faktoreetan. Horrela, jendeak egiten duenetik sortzen diren tipologiak lortzen

dira. Algoritmoak automatikoki sortzen ditu profilak, antzeko praktika-ereduak dituzten pertsonak elkartuz.

Txostena osatuta itxi da urtea; argitalpena, aldiz, hurrengo urtean izango da prest.

Kultura-sektoreko erronkak

Gobernantza eta kultura ondare

immaterialari buruzko azterlana egin da. Kultura Ondare Immaterialaren (KOI) esparru kontzeptual eta juridikotik abiatuz, txostenak gogoeta egiteko, antolatze eta KOIa kudeatzeko esparru egituratua adosteko saiakera egiten du, euskal administrazio guztiekin, erakunde akademiko eta erlijiosoekin, eta komunitate eramaileekin, KOIaren kontzeptuaren beraren ardatz baitira.

Kultura gizarte-bazterketaren aurrean

aztertzea bideratu da bigarren azterlana. Hiru bloke nagusitan egituratzen den txostenak

hausnarketa egin nahi du parte-hartze kulturalaren eta gizarte-bazterkeriaren inguruan. Hausnarketak diagnostikotik (desberdintasunen kulturalen eta bere faktoren azterketa) proposamenera pasatzea dakar berarekin (kulturaren onura sozialak identifikatzea eta ekintzen diseinua).

Kultura eta zahartze aktiboari buruzko azterlana da egin den hirugarrena. Azterlan honek gogoeta eskaini nahi du zahartze aktiboari buruz, eta kulturak zer ekarpen egin diezaiokeen azpimarratu. Kultura-praktika maila globalean bultzatutako estrategietan esplizituki jaso ez badago ere, onura kognitiboak, emozionalak, adierazkorrak eta sozialak sortzeko berez duen gaitasunak lagun dezake zahartze aktiboko politikak nabarmen aberasten, eta, hala, adinekoen bizi-baldintzak hobetzen.

Laugarren azterlan batean, **Hezkuntza eta kultura. Jardunbide egokien inspirazioa**, bien arteko harremana aztertzen da. Gaur egun, nazioartean nolabaiteko adostasuna

dago kultura eta hezkuntza erlazionatzen dituzten jardueren ondoriozko onurei buruz, eta, horregatik, duela hamarkada batzuetatik hona, UNESCO gisako nazioarteko erakundeak lanean ari dira orientazio-ildo hori bultzatzeko eta indartzeko. Errealitate horretatik abiatuta, lehen blokean nazioarteko eztabaida teorikoa berrikusten da, eta aztertzen da paradigma-aldaketak zer aukera dakarren kultura-hezkuntzaren presentzia handitzeko hezkuntza sisteman. Bigarren blokean, kulturaren eta hezkuntzaren arteko lotura sakonago aztertzen da, eta hezkuntzaren, kulturaren, ekonomiaren eta gizartearen arloetako onurak arakatzen dira. Azkenik, hirugarren blokean, kulturari eta hezkuntzari atxikitako egungo joeretan eta jardunbide egokietan sakontzen da.

Beste azterlan batean, **liburutegiek alfabetatze mediatikoan duten zeregina** aztertu da. Txosten honek alfabetatze mediatikoaren kontzeptua aztertu eta egungo testuinguruan kokatu nahi du.

Nazioz gaindiko erakundeek laguntza-ekimenak aztertzen dira eta liburutegi publikoetan aplikatzeko kasuak identifikatzen dira.

Txostena osatuta itxi da urtea; argitalpena, aldiz, hurrengo urtean izango da prest.

Sektore-eskaerei irekitako txostena

Euskal Herriko musikaren sektorearen egoerari, beharrei eta erronkei buruzko azterlana osatu da, Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkartearen EHMBErekin lankidetzan. Azterlan honek Euskal Herriko musika-sektorearen erretratua egiten laguntzen du, haren egungo egoerari, beharrei eta aurrean dituen erronkei buruzko ikuspegi globala emanez. Inkesta bat banatuz gauzatu da, eta, horri esker, 90 eragile baino gehiagoren ahotsa jaso da. Horrek sektorearen begirada zabala eta askotarikoa eskainiko du.

4. Kulturklik

Kulturklik euskal kulturaren erreferentziako ataria da, Euskal Herriko kultura-eragile guztiekin partekatzen dena, haien kultura-ekitaldiak eta beste eduki interesgarri batzuk zabaltzeko. Bi atal nagusi ditu, bata orokorra, eta bestea kulturako sektore profesionalari zuzendua. Gainera, atariak, barnean, euskal kulturaren egoera aztertzeko oso datu erabilgarrien biltegi gisa funtzionatzen du.

Automatizazioa

Baliabideak optimizatzeko eta kultura-agenda osatuena eskaintzeko helburuan aurrera egiteko, Kulturaren Euskal Behatokia automatizazio-prozesuak sustatzen ari da, eragileen programazioa automatikoki jaso dadin Kulturkliken. 2024an, Getxo-Kulturako agendaren automatizazio-prozesua ezarri da (horrekin % 23ko automatizazio-tasa lortu da agendan)

Hobekuntzak atarian

Kulturaren Euskal Behatokia hainbat hobekuntza bultzatu ditu atarian 2023 urtean, bai kanpoko erabilerari bai datuen barne-ustiapenari eragiten dietenak:

- **Agendaren bilatzailearen “Lekua” iragazkia hobetzea:** orain, bilaketa bakar batean ikus daiteke hainbat udalerriren kultura-eskaintza (lehen, balio bakarra sar zitekeen “Lekua” eremuan), eta udalerrri jakin batetik gertu ere bilatu daitezke ekitaldiak (“Eta inguruak” laukia aktibatzean, 15 km-ra dauden udalerrien agenda erakutsiko da, lerro zuzenean).
- **Agendaren edukietan ekitaldi gehiago iradokitzea:** agendaren fitxetan, bi esteka sartu dira ekitaldi bati lotutako kultur ekipamenduaren eta udalerrriaren agenda erakusteko. Halaber, agendako eduki guztien hegalean, Kulturklik taldeak

nabarmendutako hiru kultura-ekitaldi nabarmentzen dira.

- **Kulturklik PROren hasierako orri berria:** Kulturklik PROren hasierako orria berriz diseinatu da, atariak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio argia eta ordenatua emateko, eta aurreko orrialdearen ikus-zarata eta nahasmena sustatzeko.
- **Ondarea, sektore berria Kulturklik PROn:** barne-kategorien kanpo-bistaratzea berrantolatu da, ondareari atal espezifiko bat emateko atari profesionalean, “Artxiboak eta liburutegiak”, “Museoak” eta “Ondarea” kategoriekin katalogatuta dauden eduki guztietarako zuzeneko sarbidearekin.
- **Deialdien bilatzailearen jarduera motak osatzea eta ordenatzea:** bilaketa

errazteko dauden motak sinplifikatu dira eta bi mota berri gehitu dira: esku-hartzea (zaharberritzeari, birgaitzeari eta/edo kontserbazioari buruzko deialdietarako) eta prestakuntza.

- **Barne-ustiapeneko adierazle berriak:**
- Erakusketa” gertaera motarako azpimotak
 - Arte eszenikoetarako bi azpimota berri: bakarriketak eta ipuin kontalariak
 - Kanpoko gertaeren adierazlea

Web-analitika

2024an amaitu da 2023ko amaieran hasitako lana, Kulturkliken audientzia-datuak neurtzeko panel xehatu bat diseinatzeko.

ARGITARATUTAKO EDUKIAK		ERABILERAREN DATUAK	
KLK OROKORRA	26.060	WEB-TRAFIKOA	
Agenda	23.830	Erabiltzaileak	1.801.210
Albisteak	1.298	Saioak	3.214.753
Sorkuntzak	932	Ikusitako orriak	5.172.083
KLK PROFESIONALA	1.819	BULETINA	
Deialdiak	880	Bidalketak	53
Agenda profesionala	517	Harpidetuak	3.796
Bereziak	40	SARE SOZIALAK	
Argitalpenak	106	Instagram	4.258
Albisteak	188	Facebook	7.281
Direktorioa	88	X	8.715

5. Komunikazioa

Prentsa oharrak

Kulturaren Euskal Behatokiaren jarduerari buruz Kultura eta Hizkuntza Politika Saiset bidalitako komunikazioak:

- 2024/02/15: [Euskadin 17.235 kultura-ekitaldi egin ziren 2023an, aurreko urtean baino % 6 gehiago](#)
- 2024/12/04: [Txilek interesa erakutsi du euskal kultur sisteman eta Euskadik kulturari ematen dion balio publikoan](#)

Web-orria

2024. urtearen amaieratik hainbat hobekuntza lantzen ari dira Kulturaren Euskal Behatokiaren azterlan kuantitatiboen datu interesgarrienak web orrian nabarmentzeko.

Estilo-liburua

Kulturaren Euskal Behatokiaren argitalpen guztietan idazketa-irizpideak bateratzeko estilo-liburu bat egin da. Barne-erabilerako dokumentua da, eta beharrak sortu ahala osatuko da.

ERABILERAREN DATUAK

WEB-TRAFIKOA	
Erabiltzaileak	8.981
Saioak	12.511
Ikusitako orriak	26.487
BULETINA	
Bidalketak	10
Harpidetuak	1.968
SARE SOZIALAK (JARRAITZAILEAK)	
X	626

6. Bestelako jarduerak

Txostenak egitea, aholkularitza ematea, kontsultak ebaztea

Lankidetza eta aholkularitza eskaini dira barneko gaietan, Kultura Sailburuordetzarentzat, bai eta beste administrazio, elkarte eta eragile partikular batzuen kanpo-eskaerei erantzuteko ere.

Era berean, Txilek gure lankidetza eskatu zuen “Partaidetza eta balio publikoa kulturean” nazioarteko topaketan. Jardunaldi horietan Kultura sailburuordea eta Behatokia izan ziren, eta “Kultura balio publiko gisa” hitzaldia eman genuen.



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

2024ko Memoria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

